


Sugegorri kantabriarra txikia, baina... boteretsua

Migel Mari Elosegi*



duen arrasto iluna du bizkarrean zehar. Hala ere, ez dira arraroak ale oso ilunak, beltzak, edota marrazkirik gabekoak. Sabelaldea normalean ilun uniformea da.

Nahiz eta itsas mailatik 1.200 metroko altueraraino ager daitekeen, sugegorri kantabriarra 200-700 metro bitartean da ugarien. Hezetasun handia behar du eta ez da urtean metro karratuko 1.200 ur-litro baino gutxiago botatzen duen lekutan bizi. Arrunta da oso belar-soro, txilardi, otadi, sastrakadi, baso ireki eta oro har, landaretza ugari parajeetan. Gehien atsegin dituen guneean artean hesiak, baso-ertzak, mendiko pisten ezpondak eta nekazarien eraikuntzetako paretak aipa daitezke.

Bestalde, hagitz ehiztari ona da eta ornodun txikien ehizan trebe da oso. Harrapakinak Jacobsen organoari esker, mingaina dantzatuz detektatzen ditu. Ahosabaian duen Jacobsonen organo delako horrek usaimenaren antzeko funtzioa betetzen du eta mingainaren bidez jasotako kinada kimikoak aztertze balio du. Ehi-zakiak hiltzeko, berriz, sugegorriak barrutik zulatutako letagin mugikorak erabiltzen ditu, hozkatzerakoan

behar da eta, noski, jostaketan ez ibiltzea hobe.

Gure lurraldean hiru sugegorri-espezie ditugu eta banaketa-mapan marraztu denez, hiruen artean eta gainezarri gabe lurralde osoa estaltzen dute. Normalean sugegorri kantabriarra (*Vipera seoanei*) alde atlantiarrean agertzen da; aspis sugegorria (*Vipera aspis*) Pirinio eta erdialdean eta, azkenik, latastei sugegorria (*Vipera latastei*) hegoaldean. Beste biak ez bezala, azken hau oso-oso eskasa dela esan behar da. Hiru espezieak antzekoak diren arren, kantabriarraren muturra borobil-antza izateagatik eta gorantz zuzenduta ez egoteagatik bereiz daiteke. Luzerari dagokionez, txikia da, gehienez 50 cm ingurukoa, baina soin sendoa du. Ezkata dortsal karenatuak ditu, gorputzaren erdialdean 21 lerro osatuz, eta 128-145 ezkata alde bentranean. Kolorazioa, berriz, aldakorra da oso: gainetik tipikoki arre-gorritzat da eta zigi-zaga egiten

FITXA TEKNIKOA

Sugegorri kantabriarra

Espezia: *Vipera seoanei*
Familia: biperidoak
Ordena: eskuamatuak
Klasea: narrastiak

Gutxi dira sugea ondoan ikusita lasai egon daitezkeen pertsonak; are gutxiago suge hori sugegorria dela jakinda. Izan ere, pozoirik gabeko suge asko baino lasaiagoak diren arren, sugegorriak pozoitsuak dira eta, ondorioz, kontuz ibiltzekoak. Narrasti hauek, dena den, tamaina txikia, buru triangeluarra eta beginini bertikala dutela eta, erraz bereizten dira. Xehetasun hauek egiaztatzeke, ordea, gerturatu egin

Sugegorri kantabriarra narrasti arrunta da oso Euskal Herriko atlantiar isurialdean.



M.M. Elosegi



M.M. Elozegi



Beste sugedorriak bezala, lodiantza, txiki samarra, buruzabala muztan motza eta begi nini bertikalduna da. Muturra ordea ez du goruntz zuzendua.

pozoia guruinetatik zuzenean harrapakinari sar dakion.

Ehizakiak antzemateko teknikari dagokionez, sugedorriak isilgordeka ibiltzen da landareetan. Normalean motel mugitzen den arren, harrapakinik gerturatuz gero, ziztu batean burua malgukiaren gisara aurrera bota eta ahoa zabal-zabalik duelarik hozka egiten dio. Dirudienez, sugeak hozkatzerakoan ehizakia hiltzeko behar adina pozoia kalkulatzeko nolabaiteko ahalmena du, hain garrantzitsua den substantzia alperrik xahutu ez dadin. Gero, pozoiak bere lana egin dezan, lasai asko itxaroten du eta ondoren, mingaina astinduz ehizakiaren arrastoari segitzen dio. Pozoiak denbora laburrean eragiten duenez, ehizakiak bide laburra baino ez du egiterik izaten, eta aurkitzen duenean burutik hasita ehizakia oso-osoarik irensten du.

Pozoi famatu hau, azken finean, eraldatutako listu guruinek sortutako substantzia da eta proteina, toxina, eta entzimaz osaturik dago. Bere eginkizuna, hortaz, ehizakia hiltzeaz gain liseriketa erraztea da. Hala ere, substantzia hau bere defentsarako ere erabiltzen du, noski, eta animalia lasaia eta iheskorra bada ere, inork erasotuz gero hozka egin dezake. Sugedorriaren pozoia hemolitiko eta koagulantea da, eta hipotentsioa, bihotz-taupaden erritmoaren aldaketa, nekrosiak eta edemak eragiten ditu. Dena den, inguruotako sugedorri kantabriarren pozoia, espezie bereko mendebaldeko aleena zein aspis sugedorriarena baino ahulagoa da eta ez dirudi osasuntsu dagoen pertsona heldua hiltzeko adinakoa denik.

Azarotik aurrera, neguaren aurpegi gogorrena iritsi aurretik, sugedorri kantabriarrak bakarka zein taldeka lurperatu eta lozorroan sartzen dira otsaila bukaera aldera arte. Bestalde, urtean zehar bi aldiz azalberritu ohi dute itxura nabarmenki aldatzen zaielarik. Larrua aldatu aurretiko kolore motelak eta begi lausotuak disdiratsuak eta leunak bihurtzen dira larrua berritzerakoan.

Udaberriari ugaltzen dira eta batzuetan udazkenean ere bai. Arrak bata bestearen parean tente jartzen dira eta burua eta lepoarekin bultzaka, indartsuenak emearekin kopulatu ahal izango du. Klima hotzetarako egokitzapen gisara, sugedorriak obo-biparokoak dira eta, hortaz, arrautzak amaren barruan txitatzen dira erdi-

berus) subespezietzat hartu izan zen, baina urte horretan espezie-kategoria eman zitzaion eta geroztik Iberiar endemismoa dugu. Galizia, Asturias, Kantabria, Leon, Palentzia eta Burgosko iparraldean, eta Euskal Herrian besterik ez dugu aurkituko mundu osoan. Euskal Herrian gainera, atlantiar isurialdeko ofidio ugariena da.

Irakurri duzun artikulua sugedorriaren hozka pairatzekotan zer egin behar den eta zer ez azalduz bukatu nahi nuen. Zorixarrez, lau lekutan

M.M. Elozegi



Dakigun bezala narrasti hau pozoitsua da eta pozoia karraskariak ehitzatzeko baldin badu ere defentsa modura ere erabiltzen du. Urtero izaten dira pozoiketa kasuak gure lurraldean.

tzeko ueña iritsi arte. Hori dela eta, 12-17 asteko ernaldia azkarrago eman dadin, emea eguzkitan jartzen da maiz, bero-bero egoteko, eta ez du mudarik burutzen energia osoa arrautzen prestaketara zuzentzeko. 4-8 kumeak uztaile-abuztutik aurrera munduraten dira, eta 16-17 cm-ko luzera besterik ez izan arren, pozoia dute eta berehala hasten dira sugandila-ehizan. 9 urte inguruko bizitza izan dezakete, baina gutxi dira adin hori lortzen duten aleak.

1976 urterarte sugedorri kantabriarra europar sugedorriaren (*Vipera*

irakurri ondoren, lau erantzun desberdin aurkitu ditut (batek, pozoia xurgatzeko, besteak torniketean egiteko, besteak ezer ez egiteko...) eta denak bat etorri dira hobereña kontuz ibiliz hozkarik ez izatea dela esaterakoan. Laguntza ederra! Dena den, badago espezie honen pozoia-aren aurkako sueroa eta garaiz sartuz gero, arazorik gabe osatuko gara.



* Biologoa